

IPAR EUSKAL HERRIKO LURRALDE KOLEKTIBITATEARI

BAI

Ekintza publiko **eraginkorr**ago baten
Euskal Herriarentzat **botere** gehiagoren
Herritarrentzat **demokrazia** gehiagoren

ALDE



Ipar Euskal
Herriko
Lurralde

Kolektibitatea
8 galderen bidez

Version en français



batera

Zergatik Lurralde Kolektibitatea? Ez al dugu jadanik instituzio bat Iparraldean?

Bai. Baina garaian, Ipar Euskal Herriko adostasunak instituzio anitzez indartsuago bat eskatzen zuen: Lurralde Kolektibitatea. Estatuak ez zuen eskaera onartu, eta baimendu zuen bakarrik 10 elkargo zaharren bateratzea EPCI bakarra sortzeko: Euskal Hirigune Elkargoa. Aldaketa historiko bat izan da, Ipar Euskal Herriak berez existitzeko eta bere burua kudeatzeko gai dela frogatzeko. Baina eskatzen genuenetik oraindik urrun dago... 🙄

Eta ez al da aski Hirigune Elkargoa?

Ez... Egiazko aitzinamenduak ekarri ditu, baina Ipar Euskal Herriak ez ditu oraindik behar besteko eskumenak eta baliabideak biztanleen beharrei erantzuteko hainbat alorretan: etxebizitza, arlo soziala, hizkuntza politika, laborantza, ekologia, ekonomia, mugikortasunak... Erabakiak oraindik lurraldetik urrun hartzen dira, tokiko berezitasunak kontuan hartu gabe 😡.

Eta ezin da Elkargoa hobetu 🤔 ?

Ez arras... Hirigune Elkargoa maximora iritsi da. Arazoa da EPCI tresna bera gehiegi mugatua dela. Tresnaz aldatu beharko genuke, gure beharrei egokiago eta erabilgarriago den zerbait izateko.

Horrek erran nahi du Elkargoa desagertuko dela??

Ez!!! Inondik ere ez!! Ez dugu berriz zerotik abiatu nahi, ezta orain arte egindako lan guztiak suntsitu ere. Ideia ez da kentzea, baizik eta gehitzea; hots eboluzionatzea: Hirigune Elkargoa ➡ Lurralde Kolektibitate bihurtzea 🌟 eskumen eta baliabide gehiago emanez.

Elkargoa Lurralde Kolektibitate bilaka daiteke?

Bai. Legeak ahalbidetzen du. Eta dagoeneko bada kasu bat Frantzian: Lyonen. Han, beren EPCla Estatus Berezikiko Lurralde Kolektibitate bihurtu zuten, departamenduko eskumenak bereganatuz. Interesgarria dena da EPClaren funtsa gorde dutela (herrien ordezkaritza, eskumenak, baliabideak, zerbitzuak...) eta gehitu dizkiotela Lurralde Kolektibitate batek dakartzan abantailak, hala nola hautetsien hautaketa bozka zuzenaren bidez. Beraz, "bi batean" den erakunde bat da: sinpleagoa, azkarragoa eta eraginkorragoa.

Zuzenean bozkatzen ahalko nituzke nire hautetsiak? Eta nire auzapeza ere han egongo litzateke?

Bai! Hala da. 😊 Eredutik hori hartzen badugu, gure herriak ordezkatzeko segituko dute, eta guk hautatuko ditugu gure hautetsiak gure lurraldearen etorkizuneko proiektuak eztabaidatzeko. Horrek, gainera, parekidetasuna bermatuko du!

Baina Ipar Euskal Herria ez da Lyon 🤔 !!

Ez, batere ez! 🤝🤝 Guk gure Lurralde Kolektibitatea irudikatu behar dugu. "Estatutu Berezia" izatearen abantaila da lurralde bakoitzak bere beharretara egokitutako tresna eraiki dezakeela. Horrek ahalbidetuko ligoke beste maila batzuetan diren eskumenak, baliabideak eta herritarrei zuzenduriko zerbitzuak berreskuratzea, gaur egun Pauen, Bordelen edo Parisen direnak...

Interesgarria! Baina zinez lor genezake?

Bai, guztiz! Lege bat beharko dugu, baina posible da. Deszentralizazioaren ideia berriz ere indarrez dator. Estatuak badaki ezin garela luzatu tresna desegoki batekin. Gainera, hiru biztanleetarik bi jadanik Lurralde Kolektibitatearen alde dira! Ez dakigu oraindik noiz, baina egingen da. Ipar Euskal Herria prest eta baturik egon behar da aldarrikapen indartsu bat eramateko. Eta hori herritarrekin batera egin behar da. Gurekin egin behar da. 🙌🙌🙌🙌🙌🙌🙌🙌

Nola lagun dezaket eta nola sar naiteke Batera herritar plataforman?

Denen beharra dugu! Ez baduzu denbora edo baliabide handirik ere, lagun gaitzakezu. Nola?

Oso erraza eta azkarra da: laguntzaile gisa izena eman dezakezu, eta ekarpen ekonomiko bat ere egin dezakezu.

Informazio guztiak hemen dituzu : www.platformebatera.org

1 Laguntzaile izan

<https://elkarte.eu/galdeketa/index.php/462128?lang=eu>



2 Diruz lagundu

<https://platformebatera.org/eu/diruz-lagundu/>



**Ipar Euskal Herriko
Lurralde Kolektibitatearen
alde**

Pour une
Collectivité Territoriale
Pays Basque

